



ELKARTEAK

Lau elkarte mota bereiz ditzakegu:

Elkarrekiko lehiakide ez diren enpresen arteko aliantza estrategikoak

Aliantza mota hauetan parte hartzen duten enpresen negozio-ereduak ez dira lehiakide merkatu-segmentu edo baliabideei dagokienez, eta elkarrekin lanean aritzea bientzako izan daiteke onuragarri.

Lehiakideen arteko aliantza estrategikoak

Merkatu-segmentu bera erakartzeko lehiatzen diren enpresen arteko aliantzak dira.

Negozio berriak sortzeko enpresen arteko elkarteak, edo Joint Venture izenekoak

Negozio baten garapenean bi enpresek baino gehiagok esku hartzen dutenean gertatzen da.

Erosle eta hornitzaileen arteko harremanak, materialen eskuragarritasuna bermatzeko

Aliantza mota honen bitartez, bere jarduera aurrera eramateko beharrezkoak dituzten baliabideen eskuragarritasuna bermatzea lortzen dute.

Gure beharrezko elkarteak hurrengoak dira:

- Eusko jaurlaritza
 - Laguntza ekonomikoak ematen dute gazte enpresa berriei.
- Udalak
 - Laguntza ekonomikoak ematen dute gazte enpresa berriei. Horrez gain, baimenak emango dizkigute lokalizazioetan grabatu ahal izateko.
- Mendizabala LHII
 - Zentroko errekonizumenduagatik diru laguntzak emango dute.
- Ortzai Aktore Eskola
 - Bolondres moduan kortoetan lan egingo duten aktore eskola bat da.

Gure elkarteak izango dituen ekarpenak hurrengo hauek dira:

- Gure produkzioen ideia eta honen garapena
- Grabaziorako alderdi teknikoa beteko dugu (zuzendaria, operadoreak...)
- Post-produkzio prozesu osoa
- Arazoak konpontzeko ahalmena
- Gure proiektuak saltzeko gaitasuna